PSE-EE PSOE
Elkarte Sozialista Agrupación Socialista Arabako Errioxa Rioja Alavesa

ATE IREKIA

ARABAKO ERRIOXAKO SOZIALISTEN AHOTSA 3. zkia. | 2026ko urria

CASTELLANO



Arabako Errioxarako mugikortasun eta azpiegitura proiektu berriak, abian

Jon Nogales foru diputatuak garraio publikoan egindako hobekuntzak aurkeztu ditu, bai eta mugikortasun iraunkorrago eta seguruago baterantz aurrera egiteko proiektu berriak ere.

Jon Nogales Mugikortasun Iraunkorreko eta Bide Azpiegituretako foru diputatuak topaketa bat izan du Arabako Errioxan. Bertan, bere departamentuak bultzatutako berrikuntza eta proiektu nagusiak azaldu ditu. Eskualdeari eragiten dioten ekimen hauez gain, udalerriek planteatutako zalantzak, proposamenak eta beharrak entzun ditu ere.

Jorratutako gai nagusietako bat garraio publikoaren hobekuntza izan da. Uztailaren 1etik aurrera, Alavabusen gaueko zerbitzu berriak sartu dira urte osoan zehar larunbatetan, eta Arabako Errioxan Laguardia–Logroño eta Oion–Logroño konexioak nabarmendu behar dira, asteburuetan ordutegiak zabaltzearekin batera. Neurri hori bereziki pentsatuta dago gazteen joan-etorriak errazteko eta norberaren ibilgailuari alternatibak eskaintzeko.

Eskualdeko garraioa

Eskualdeko Garraioan ere berrikuntzak aurkeztu dira. Berrikuntza horiek Arabako Errioxan zerbitzua indartzea ekarri dute. Ekainaren 1etik, eskualdeak linea bakarra izatetik bi izatera igaro da —22. linea (Errioxa mendebaldea) eta 23. linea (Errioxa ekialdea)—, eta Guardiarekiko, Lezako Ospitalearekiko eta 9. linea (Alavabus) hobetu egin dira. Antolaketa berriari esker, gainera, Bilar, Kripan eta Lantziegoko maiztasunak handitu dira, eta Moreda, Barriobusto eta Labrazako eskualdeko garraioa lehen aldiz sartu da. Hobekuntza horiei erreserba-sisteman malgutasun handiagoa gehitu behar zaie.

Iragarritako beste nobedade bat izan da aurki toki erakundeentzako laguntzak abiarazi direla. Horien bitartez, mugikortasun planak egin eta horiek garatzeko inbertsioak egin ahalko dira. Plan horiei esker, herritarrak nola desplazatzen diren jakin ahal izango da, udalerri bakoitzaren premien diagnostikoa egin ahal izango da eta, ondoren, jarduera zehatzak planteatu ahal izango dira; hala nola, oinezkoentzako ibilbide seguruak, bizikleta bideak, irisgarritasun hobekuntzak edo bizikletentzako aparkalekuak.

Horri Geltokien Plan Zuzentzailea gehitu behar zaio. Plan horren bidez, garraio publikoaren geltokiak pixkanaka hobetzeko bidean aurrera egin nahi da, eta lehentasun gisa segurtasuna, irisgarritasuna eta argiztapena ezarri dira, bai eta horien modernizazioa eta erabiltzaileei informazio hobea ematea ere.

Bizikleta bidea

Eltziego eta Guardia arteko bidegorriari buruzko informazioa ere eman du Nogalesek. Proiektu horretan lanean ari dira, eta bi herrien arteko mugikortasun iraunkorragoa bultzatu nahi dute, turismoari eta eskualdearen gozamenari lotutako aukera berriak eskaintzeaz gain.



Foru Gobernutik, zerbitzu sozialak eta zaintza bultzatuz

Arreta soziala eta zaintza indartzeko hobekuntzen berri ematen digu Eva Jimenez Alcudia Batzar Nagusietako lehen presidenteordeak.

Landa eremu batean bizitzean, zerbitzu publikoak gure herrietako errealitateari egokitu behar dira ezinbestean. Arabako Errioxan udalerri txikiak ditugu, eta sakabanatutako biztanleria. Hori dela eta, arreta hurbiltzea lehentasun bat da. Sozialistontzat, kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzea berdintasun eta lurralde kohesio kontuak dira.

Foru Gobernuak zerbitzu sozialen eta zaintzen sarea indartzen jarraitu du, hurbiltasunezko arreta pertsonalizatu baten alde eginez. Guardian, Oionen eta Bastidan erreferentziazko bulegoak dituzten Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek dependentziarekiko akonpainamenduari, adinekoei, prestazioei, famil laguntzei edota zaurgarritasunari buruzko informazioa eta orientazioa eskaintzen dituzte.

Udalerri txiki batean bizitzeak ezin duelako ekarri eskubide gutxiago edukitzea. Hori gerta ez dadin, hurbiltasun arretarako eredu honek pertsonei zerbitzuak hurbiltzen dizkie.

Etxetik gertu zahartuz

Erronka handienetakoa da zahartzeari erantzun bat ematea, herrian eta betiko etxebizitzan bizitzen jarraitzeko pertsonek duten nahia errespetatuz. Filosofia horren baitan sartzen da Etxean Bai, aldundiak eskaintzen duen eredua dependentzia duten pertsonak beren etxean eta inguruan gera daitezen. Horriez gain, badira etxez etxeko laguntza zerbitzua, teleasistentzia, eguneko arreta eta egoitza baliabideak.

Herri txiki batean bizitzeak eskubideen galera ekar ez ditzala bermatzen duen eredu baten alde lanean ari gara

Samaniegoko foru egoitzaren berrikuntza nabarmendu beharra dago. 8,3 milioi euroko inbertsio bat izan du, 44 plazarekin. Elkar bizitzeko unitateen arabera antolatzen da, etxebizitza bati gerturatzen diren espazioekin. Familia, herria eta betiko inguruarekiko gertuagoko zaintza egitea da helburua.

Eguneko arreta zerbitzua

Eguneko arretari esker, egunean zehar laguntza jaso eta etxean bizitzen jarrai daiteke. Arabako Errioxak Elvillarreko Eguneko Arretarako Landa Zentroan eta Oiongo foru egoitzan eguneko arreta zerbitzua ditu. Horiei Bastidako proiektua gehituko zaie, mendebaldeko eremuan arreta indartuz.

Autonomiaren eta berdintasunaren defentsa hori iritsi behar da desgaitasuna duten pertsonengana. Oionen, Kimu Zentro Okupazionalak adimen desgaitasuna duten pertsonak artatzen ditu, haien autonomia, garapen pertsonala eta parte hartzea bultzatuz. Herriak, gainera, laguntzak dituzten etxebizitzak ditu, beren familia eta gizarte ingurunetik gertu autonomia handiagoko bizi proiektu bat garatzeko aukera ematen dutenak. Sozialistontzat, inklusioak aukerak eta babesak bermatzea esan nahi du, baita gure herrietan ere.

Indarkeria matxista

Gizarte zerbitzuek, gainera, beste errealitate batzuei erantzuna ematen diete; besteak beste, indarkeria matxistaren prebentzioari eta horren gaineko arretari. Arabako Errioxan erakundeen arteko lankidetza indartu da. Indarkeria jasaten duen emakume bat babestea eta laguntzea ere ezin dira izan norbera bizi den udalerriaren tamainaren araberakoak.

Foru Gobernuaren lan horri Espainiako Gobernuak bultzatutako Mendekotasun Sistemaren finantziazioa gehitu behar zaio. Ongizate estatua indartzeko eskubideak behar dira, baina baita eskubide horiek gauzatzeko baliabide nahikoak ere.

Eva Jimenez Alcudiaren ustez, erronka da hurbiltasunean aurrera egiten jarraitzea, zainketak indartzea eta herritarrei zerbitzu eskuragarri eta merkeak bermatzea: gure herriak defendatzea horietako bakoitzean ongizate estatua defendatzea ere bada.

Sozialistontzat, berdintasuna ezin da posta kodearen araberakoa izan: adineko pertsona batek, desgaitasuna duen pertsona batek, laguntza behar duen familia batek edo genero indarkeriaren biktima den emakume batek kalitatezko zerbitzu publikoak izan behar ditu, baita Arabako Errioxan ere.

Memoriari buruzko ekimenak Labrazan eta Eltziegon

Bi hitzorduen harrera onak erakutsi du errepresio frankista jasan zuten pertsonak ezagutzeko, oroitzeko eta duintzeko interesa dagoela eskualdean.

Azken hilabetetan memoria demokratikoak herritar ugari bildu ditu Arabako Errioxan, gure historiaren parte bat berreskuratzea ahalbidetu duten bi ekimenekin. Horien bitartez, errepresio frankista nozitu zutenei izena eta aurpegia jarri zaizkie.

Labrazan, Oscar Layana gure kideak —Oiongo Udaleko zinegotzi sozialista da Layana— Teodoro Calvo errepresaliatuaren irudiari buruz antolatu zuen hitzaldiak harrera ezin hobea izan zuen. Calvo herrian jaiotakoa zen, eta frankismoaren errepresioa nozitu zuen.

Bere ibilbide pertsonalera ez ezik, topaketak Arabako Errioxako errepresio frankistaren testuingurura ere hurbiltzeko aukera eman zigun, denbora luzeegian isilean egon ziren istorioak berreskuratuz. Auzokideen erantzunak berriro erakutsi zuen interesa dagoela gure herrietan zer gertatu zen jakiteko eta indarkeria eta jazarpen hura jasan zutenen oroimena berreskuratzeko.

Memoriarako olibondo bat

Konpromiso hori bera egon zen Eltziegon ere, duela gutxi sortu den La Pilastra Memoria eta Kultura Demokratikoaren aldeko elkarteak herrian antolatutako omenaldi ekitaldiaren bitartez. Jende askoren parte hartzea izan zuen ekitaldi horrek.

Memoriaren Olibondoa izenpean, omenaldiak 1936ko estatu kolpearen ondoren Eltziegon hildako eta errepresaliatutako pertsonak gogoratu zituen, bai eta herrian erail zituzten beste udalerri batzuetako pertsonak ere. Olibondo bat landatzea, biktimen izenak irakurtzea eta ondoren hilerrian eskaintza egitea ekitaldi xume eta hunkigarria izan zen, oroimen eta aitortza gisa.

Bi ekimen desberdin, baina helburu berarekin: Arabako Errioxako historiaren parte diren kontakizunak ahanzturatik berreskuratzea eta belaunaldi berriei helaraztea, inoiz ahaztu ez daitezen.

Izan ere, memoria berreskuratzeak ez du esan nahi iraganera begiratzea bertan geratzeko. Gure historia ezagutzea, bidegabeki sufritu zutenak duintzea eta Memoriaren, Egiaren, Justiziaren eta Erreparazioaren alde lan egiten jarraitzea esan nahi du.





Eskualdeak erantzunak behar ditu

Javier Entrena, Arabako sozialisten nekazaritza idazkari ondokoa

Arabako Errioxan kezka dago, eta ez da gutxiagorako. Mahastiak lantzen bizitza osoa daramatenak kanpaina zail bat daukate aurrean. Ekoizpen kostuei eta merkatuaren ziurgabetasunari mahatsa merkaturatzeko zailtasunak eta urte osoko lana eta gastuak konpentsatzen ez dituzten prezioak gehitu behar zaizkie. Aurten, gainera, mahastizain batzuek beren uztaren zati bat erosi nahi ez duten upeltegiak aurkitu dituzte.

Mahasti bakoitzaren atzean familia bat, ustiategi bat eta lanordu asko daude. Ezin dugu normaltzat hartu, zailtasunak iristen direnean, mahastizainak izatea beti galerak jasan behar dituztenak.

Horregatik betearazi behar da Elikadura Katearen Legea. Ez da nahikoa lege bat izatea. Betetzen dela zaindu behar da, eta hala ez denean, jardun. Ekoizten duenak ustiategia mantentzeko moduko baldintza eta prezioekin egin ahal izan behar du.

Eta etorkizunari ere begiratu behar diogu. Arabako Errioxak aberastasun handia du: ezagutza, tradizioa, gure nortasunaren parte den paisaia eta bere kalitateagatik aintzatetsitako ardoak. Baina indar hori ez da nahikoa izango gure gazteek lurra lantzen jarraitzeko arrazoirik aurkitzen ez badute. Belaunaldi erreleboak lehentasuna izan behar du.

Horri guztiari gure mahastietan dagoeneko ikusten ari garen arazo bat gehitu behar zaio: klima aldaketa. Mahats bilketa lehenago iristen da, lehorte aldi gehiago daude, tenperatura altuagoak eta klimatologia gero eta irregularragoa. Egoera horretara egokitzeko, inbertsioa, berrikuntza, ikerketa eta erakundeen laguntza beharko dira. Ezin ditugu mahastizainak bakarrik utzi sektore osoari eragiten dion erronka baten aurrean.

Arabako sozialistok sinetsita gaude lurra lantzen dutenen ondoan egotea dagokigula. Besteak beste, bidezko prezioak defendatzea, Elikadura Katearen Legea betearaztea, mahatsa merkaturatzeko arazoak dituztenei laguntzea eta sektoreari garai berrietara egokitzen laguntzea dira orain betebehar nagusienak.

Mahastia defendatzea gure herriak, ekonomia eta bizimodua ere defendatzea delako.

Mahastizainak ez dira ezinezkoa eskatzen ari. Beren lanetik bizi ahal izatea eta mahastiak zaintzen jarraitzea merezi duela ziurtatzea eskatzen dute: guztiz zentzuzkoa den zerbait, alegia. Horregatik, entzuteko, erantzuteko eta maila berean egoteko betebeharra dute erakundeek.



Turismo jasangarria jada errealitatea da eskualdean

Europatik gure herrietara: Europako funtsetatik jasotako 5,5 milioi euroak gure eskualdean proiektu turistiko berriak gauzatzen hasi dira.

Azken urteotan asko hitz egin dugu Europako Next Generation funtsei buruz eta gure herriak eraldatzeko eta etorkizuneko erronketako batzuei aurre egiteko ematen zuten aukerari buruz. Gaur, aukera horren zati handi bat errealitatea da.

Orotara, 5,5 milioi euro dira Europako funtsetatik Arabako Errioxako Turismo Jasangarritasunerako Planera bideratutakoak. Inbertsio hori Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bitartez iritsi da gure eskualdera. Javier Hurtado sailburu sozialistak zuzentzen duen sailetik, hain zuzen ere.

Hortik aurrera, funtsezkoa izan da Arabako Errioxako Kuadrillaren lana, eskualdeko udalekin lankidetzan. Lan horri esker, paperaren gainean aurreikusitako funtsak eta proiektuak jarduera zehatz bihurtu dira gure herrietan.

Dibertsifikaziorantz

Helburua turismo eredu jasangarriago eta dibertsifikatuago baterantz aurrera egitea izan da, gure erreferente nagusiak —ardoa eta enoturismoa— osatzeko gai izango dena, gure eskualdea bakarra egiten duten beste baliabide batzuei balioa emanez: ondare historikoa, olioa, gure hirigune historikoak, paisaia, natura eta gastronomia.

Adibiderik ikusgarrienetako bat gure ondare historikoaren argiztapen eraginkorra da. Guztira, Arabako Errioxako 18 herritako 44 eraikin eta monumentu hartu ditu proiektuak: elizak, ermitak, harresiak, dorreak, iturriak, garbitegiak, zubiak eta beste elementu berezi batzuk, eraginkortasun energetikoaren eta jasangarritasunaren irizpideei jarraiki balioesten ari direnak.

Onurak lurraldean utziko dituen turismo jasangarri baten alde lanean jarraitzen dugu

Baina Plana askoz harago doa. Begiratokiak eta gure paisaia interpretatzeko espazioak sortu eta hobetu, berdeguneekin eta klima aldaketaren aurrean egokitzearekin lotutako jardun, ondare ibilbideak eta baliabideak balioetsi edo tresna digital berriak erabiltzea: horiek guztiek Arabako Errioxa ezagutzeko beste modu bat eskaintzea ahalbidetzen dute, pausatuagoa eta lurraldeari lotuagoa.

Oleoturismoa bultzatzea

Garrantzi berezia hartzen du Arabako Errioxako olioak, orain arte ardoaren protagonismo turistiko bera izan ez duen produktua baita. Oleoturismoa bultzatzeak eta antzinako olio dolareen balioa azpimarratzeak ondare hori gure eskaintza turistikoan sartzea ahalbidetu dute. Adibide ona da Gorrebustoko dolare zaharra, olioa interpretatzeko espazio bihurtu dena, eskualdeko hainbat baliabide lotzeko aukera emango duen etorkizuneko ibilbide baten barruan.

Horrekin batera, digitalizazioak eta turismo informazioko tresna berriek lagundu egiten dute bisitatzen gaituztenek tradizioz turismo zirkuitu nagusietatik kanpo geratu diren lekuak ezagutzeko aukera izan dezaten.



Kaferik bai?

Entzun nahi dizugu!

Gure egoitza Arabako Errioxaren bihotzean dago, Guardian, eta gure bizilagunentzat ere gune irekia izatea nahi dugu.
Proposamen bat, zalantza bat edo kexa bat baduzu, edo zure herria kezkatzen duen zerbait gurekin partekatu nahi baduzu, hurbil zaitez eta hitz egin dezagun.
Ateak zabalik daude. Kafea, gure kontu!